


HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2022







Donostia, 2022ko martxo

© Testuen egileak: Irati Zaldúa, Intza Alkain,
Saroa Bikandi eta Mireia Delgado

© Diseinua eta maketazioa: Maddi Orcajo

© Galtzagorri elkartea
Zemoria kalea 25, beheà
20013 Donostia
galtzagorri@galtzagorri.eus
www.galtzagorri.eus

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.
Araba kalea, 45
20500 Zarautz
L.G.: D 361-2022



HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2022

ESKUZABALAK

“Literatur liburu on batek, eskuzabala behar du izan, eta beti egongo da zerbait gehiago kontatzeko prest” (T. Colomer). Galtzagorri Elkarteak 1990. urtean eratu zenetik, euskarazko liburuek kontatzeko duten hori esku guztietara zabaltzeko lanean jardun da. Batetik, Euskal Haur eta Gazte Literatura ezagutaraziz; eta bestetik, haur zein gazteen irakurtzeko zaletasuna sustatu eta heziketa literarioa bermatuaz. Oraingo honetan ere, Galtzagorri bide beretik jarraitzeko asmoa du.

Haur eta gazteak literaturara hurbiltzeko xede horretan, elkarteak indar berezia jarri izan du bitartekariak diren irakasle, liburuzain eta familiak trebatu eta literatur heziketa jasotzeko zereginetan. Izan ere, Gianni Rodari idazle ezagunak azpimarratzen zuen bezala, irakurketara zaletzeko modu bakarra irakurtzearen plazera kutsatzea da, eta hori, liburuak eta istorioak eskaintzeko giltza duenak soilik egin dezake. Horrexegatik jarri genituen abian 2018an Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak, eskoletako bitartekariei transmisio hori burutzeko klabeak eskaintzeaz gain, haiek ere Euskal HGLa deskubritu eta zaletu zitezten.

Aurten ere Galtzagorri Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura sailarekin lankidetzan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan lantegiak egiteko bosgarren edizioa ipini du martxan. Era berean, tokiko udal bibliotekariak ere gonbidatzen dira lantegiak jasoko dituzten ikastetxeetara, bi esparru hauen arteko elkarlana sustatze aldera. Gida hau eskuartean baduzu, ziurrenik Galtzagorriko kideak zure eskolan izan direlako da.

Haur eta gazteentzako liburuen gidak aipaturiko egitasmoaren jarraibideak biltzen ditu. Hortaz, jarraian Euskal Haur eta Gazte Literaturan argitaratu diren 40 bat izenburu topatuko dituzu, liburu bakoitzarekin bitartekariarentzako esku-hartze proposamen bana jasotzearekin batera. Hartara, liburu hautaketa bat erraztu eta ikasleekin hauen lanketa egiteko tresnak jarri nahi ditugu zuon eskura.

Galtzagorri elkarteak urteak daramatza, bere Irakurketa Mintegiaren bidez, haur eta gazteentzako euskarazko argitalpenak irakurri, baloratu eta hautatze lanetan, etaaldi berean, Ezinbestekoak zerrenda osatzen da urtero. Balorazio eta hautaketa hauetan oinarritutako liburu zerrendak osatzen du gida hau, hain zuzen. Beraz, bertan literatura kalitatea aitortu zaien liburuak topatuko dituzu: argitaratu berriak gehienak, gaurkotasuna galtzen ez duten klasiko berrargitaratuak, eta genero literario ezberdinetakoak. Garrantzi berezia ematen diogu azken honi, fikzio molde ezberdinak ematea beti delako aberasgarria, bai heziketa literariorako, baita irakurketara erakartzeko ere. Hortaz, gomendiozko adinkako sailkapen batean, album ilustratuak, komikiak, eleberrak, ipuin liburuak, poesia liburuak edota fikzio digitala ere topatzeko aukera duzu. Aurten, audio-fikzioak ere izango du lekua lehenengoz gure zerrendan. Eta euskal argitalpenek edo euskarazko itzulpenek osatzen badute zerrenda ere, lekutxo bat egin nahi izan diegu geure mugetatik kanpo sortu diren hainbat liburu edo aplikazio digital bereziri.

Galtzagorriko kideok zuen ikastetxera hurbiltzen ditugu gidako liburuak gurditxo batean. Aurreko edizioetan egin dugun bezalaxe liburuak zuen esku artean uztearekin

batera, liburuokin ikasleak irakurketara zaletzeko praktika eta dinamika proposamenak luzatzen dizkizuegu. Azken edizio honetan, ordea, lantegia aurrez ezagutzen zenuten ikastetxeekin, tailerrari jarraipena eman nahi izan diogu eta ikasleekin lanketa literario bat burutzeko oinarriak landu nahi izan ditugu. Horretarako, liburuak begirada literario eta artistiko batetik irakurtzen ikasteko tertulia literarioen dinamikan barneratuko gara. Hauen helburua, istorioek eskaintzen dizkiguten irakurketa ezberdinak partekatzea izango da, finean, elkarri norbere irakurketa oparitzea. Liburuak esku artean zabaldua, eskuzabalak izango gara!

Galtzagorri elkarteak
Donostia, 2022ko martxoa

2 urtetik aurrera:

ZER BEHAR DA?	9
IRRIMOLA	10
IKARAGARRI ASPERGARRIA	11
O!	12

4 urtetik aurrera:

DOROTEA	13
BEGIRATU LEIHOTIK!	14
NOR IZAN NAHI ZENUKE?	15
AUTO-STOPEAN	16
AMONA TOMAXA ETA SAGARRA.....	17
LA COURSE AU GÂTEAU	18

6 urtetik aurrera:

BASOAN BARNIA	19
OLIVIA ETA MAMUA	20
KROKODILOA	21
TXOMIN TXAPEL	22
MAX ETA MORITZ	23
SUMENDIAK	24
HANKA, MOKO ETA BUZTAN	25

8 urtetik aurrera:

UR ETA LUR	26
ATA PANK ETA ATE PUNKY. DESIOA	27
AZKEN OTSOA	28
BARRUKO HOTSAK ETA BESTE SOINU TXIKI	
BATZUK	29

10 urtetik aurrera:

MAMUAK ETA BIHOTZAK. KLARISA ETA	
K TALDEA, 3	30
HILI	31
ASTERIX ETA GRIFOA	32
GROAU	33

12 urtetik aurrera:

LURREKO PAISAIA GALDUAK	34
ESTHER FERRER ETA DENBORA. (IA) GUZTIA	
MOZTU ETA ITSAS DAITEKE	35
EMAKUME GUZTIOK	36
MOTX MOTXEAN: AFORISMOAK	
HASIBERRIENTZAT.....	37
BAT. PARTIDA HANDIA	38
ETXETIK AMERIKETARA	39
SHERLOCK HOLMESEN ABENTURAK	40
ITSASOAREN ATEA	41
HORMAK	42

14 urtetik aurrera:


Á TRAVERS	43
JARRAITU INURRIARI	44
TUPUST! 2	45
LAZUNAK AZKAZALETAN	46
ANTIPODAK	47
ZERAK.....	48
GEZURRA.....	49

Audiofikzioa:

ARTXIPELAGOA	50
ZALDI URDINA	51

Fikzio digitalak / Aplikazioak (APP):

TOWNSCAPER	52
SAMOROST 3	53
INSIDE.....	54
A NORMAL LOST PHONE	55



ZER BEHAR DA?


Idazlea: Gianni Rodari
 Ilustratzailea: Silvia Bonanni
 Itzultzailea: Fernando Rey
 Pamiela-Kalandraka, 2020
 ISBN: 978-84-9172-164-2
 32 orrialde
 Album ilustratua

Poesia eta hitz-jokoaren arteko nahasketa bat da album ilustratu hau. Kontakizunak eguneroko objektu baten jatorriari buruzko hausnarketa egitera eramango gaitu segida logiko bati jarraituz. Mahai bat egiteko zer behar den galdetuz hasten da liburu eta erantzunari ere galdera bera eginez jarraitzen du behin eta berriz amaierara iritsi arte. “Mahai bat egiteko, egurra behar da. Egurra egiteko, arbola behar da. Arbola egiteko, hazia behar da...”. Naturak gure egunerokotasunean duen garrantziari keinu polita egiten dio kontaketak. Galdera bakoitza egitean haurren jakin-mina piztuko da eta, asmakizun bat izango balitz bezala, erantzunak bilatzen hasiko da irudien laguntzarekin.

Silvia Bonanni ilustratzaile italiarrak collagearen teknika erabili du paper eta oihal zati koloretsuen nahasketa dotorea eginez. Gianni Rodari idazle italiarraren jaiotzaren ehungarren urteurrenean berrargitaratu zen liburu hau.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Kantatzeko liburu aproposa da. Hona hemen bi adibide: <https://youtu.be/M5vyWc3s6WY> eta <https://youtu.be/sddptx6n9L8>


LH-ko lehen eta bigarren zikloetan lantzeko ere jolas ariketa polita izan daiteke. Liburuak mahai bat egiteko zer behar den galderari erantzunez sortzen du istorioa eta ildo honi jarraituz, beste objektu batzuk egiteko behar diren elementuei buruzko galdera desberdinak sortu ditzakegu.



IRRIMOLA
Egilea: Maite Mutuberria
Ikaslar, 2021
ISBN: 978-84-18410-33-8
28 orrialde
Album ilustratua

Poza abiapuntu duen liburu borobila da. Biribila baita poza ere, barruan daramagun zurrunbiloa. Batzuetan, leunki ateratzen da, haize epela bezala, beste batzuetan berriz, xirimolaka kanporatzen dugu, irri eta algaraka. Finean hori da irrimola, poz zirimola. Zortzi pertsonaia ageri dira hasieran eta irrimola datorrela iragarriko dute. Zain dauden bitartean, eguraldi aldaketak pairatuko dituzte: eguzkia, hodeia, tximista, trumoa, euria, kazkabarra eta elurra. Koloreen bidez ilustratzen dira eguraldi aldaketa hauek. Azkenean, haize-algarak ekarriko du irrika biziz esperotako irrimola. Poza irudikatzen da eta poza eragingo digu kontakizunak. Jolas desberdinak ere topatuko ditugu barruan, asmakizunak, onomatopeiak eta ezkutatutako pertsonaiak. Ilustrazioak oso koloretsuak eta adierazkorak dira.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Jolaserako proposamena dakar liburu berezi honek. Kontatzerako garaian, bitartekariak asmatu behar du kontakizunarekin bat datorren erritmoa. Bestalde, ume nagusiagoei erronka bota diezaiekegu txikien kontalari bihurtu daitezen eta ea zer bururatzen zaien. Hona hemen ideia batzuk: <https://www.ikaslar.eus/kukuprograma/poza/album>



IKARAGARRI ASPERGARRIA
Egilea: Raquel Bonita
Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun
Bookolia, 2021
ISBN: 978-84-18284-28-1
32 orrialde
Album ilustratua

Asperraldie buruz hausnartuko du album ilustratu honek. Arratsalde batzuk motelak dira, gogaikarriak, lo-eragileak, astunak, hau da, ikaragarri aspergarriak, edo agian ez? Izan ere, batzuentzat ikaragarri aspergarria den arratsalde bat beste batzuentzat abenturaz betetako arratsalde dibertigarri eta kitzikagarria izan daiteke. Kontakizun simple honek irakurlearekin jolasten du, behin eta berriz irakurtzera bultzatuz. Testuak istorioa kontaktzen du esaldi laburrak erabiliz baita irudiek ere, baina istorio bera ote da? Ilustrazioek liburuan murgilaraziko gaituzte, baita beste barnealde batzuetan ere... Kolore gutxi erabiltzen ditu, arrosa, berdea eta beltza, oso deigarriak eta erakargarriak. Liburuari xarma berezia ematen dio azalaren testura leunak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Aspertzea zer den eta zertarako balio duen hausnartzeko liburua izan daiteke. Filosofikoagoak jarritz, jendartearen abiadura honetan hutsuneek zer nolako garrantzia duten gogoratzeko eta horiek sortzeko ere bai. Praktikoagoak jarrita, berriz, asperten garenean egin ditzakegun gauzen dekalogo bat sortu dezakegu taldean, idazketarekin jolasteko.




O!
Egilea: Josse Goffin
Pamiela-Kalandraka, 2021
ISBN: 978-84-9172-241-0
11 orrialde
Album mutua

Hitzik gabeko jolas-liburu bat da, irudiak dira protagonista. Ilustrazio hauek berez ez dute istorio bat kontatzen baina elkarren artean nolabaiteko lotura osatzen dute bukaeraraino. Orrialde bakoitzean gauza baten irudia dago (katilua, arraina...) eta tolestutako orria zabaltzean are handiago den irudi berri bat agertuko da, aurrekoarekin zerikusirik ez duena (adibidez, katilua itsasontzi bihurtuko da eta arraina ahate). Trazu lodiko irudi planoak dira eta haurrak erraz ezagutuko ditu baina ezkutuan dagoena agertzean... O! Hau ezustekoa! Sorpresa eta harridura eragingo dizkio, izan ere, sarritan gauzak ez dira izaten diruditenak. Liburu dibertigarria da elkarrekin irakurtzeko eta irudimena aske uzteko. Haurrek zein helduek izugarri gozatuko dute album honekin.

Josse Goffin ilustratzaile belgikarrak 1991n argitaratu zuen lehenengo aldiz liburu hau eta gerora hainbatetan berrargitaratu da. 1993an Sari Grafikoa irabazi zuen Boloniako Haur eta Gazte Liburuen Nazioarteko Azokan.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Hitzik gabeko liburua izanik, kontaketa desberdinak egiteko aukera ematen du. Orrialde tolesgarri bakoitzak istorio bat du eta, orrialde horietako bakoitza zabaldu aurretik, haurrei galdetu diezaiekegu bertan zer topatzea espero duten. Irudian azaltzen den sorpresa beti dago lotuta hurrengo orrialdean agertuko den irudi berriarekin. Horregatik, haurrekin batera, ertz desberdinetatik kontaktu daitezkeen istorio anitz izan ditzake.



DOROTEA
Egilea: Amaia Egidazu Arrube
Pamiela, 2021
ISBN: 978-84-9172-240-3
26 orrialde
Album ilustratua

Umorez betetako ipuina da hau. Testu errimatua du, paralelismo eta segidak eginez. Dorotea bakarrik bizi den amona ausart eta irudimentsua da. Arazo handi bat sortuko zaio etxean, arazo bat bestearen atzetik. Irtenbideak bilatzen saiatuko da baina gero eta gehiago konplikatuz joango zaio eta amaieran sorpresa itzela hartuko dugu. Jolaserako tartea eskaintzen du kontakizunak, irakurlea galderak erantzutera gonbidatuz. “Doroteak etxea zeukan euliz betea. Gogaitu zen Dorotea, ezinezkoa baitzen etxean lasai egotea. Baina, nola lortu euli guztiak desagertzea?”. Irudi koloretsu eta dibertigarriak sortu ditu egileak collagearen teknika erabiliz. Elkarrekin irakurritz gozatzeko liburua da, barre ugari eginaraziko diguna.

Haurrentzako albumak sortzeko XV. Etxepare saria jaso zuen. Epaimahaikideen hitzetan, album petoa, oreka betekoa da eta “natura eta kultura, tradizioa eta traizioa dotore biltzen ditu”.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Animalien elikadura-katean hurrengoa zein izango den aurreikus daiteke liburu honetan. Hau aitzakia gisa hartuta, animalien argazkiak bilatu eta mural bat sortu dezakegu kate hori irudikatuz.


Liburuaren azken guardetan Txanogorritxo agertzen da eta honek bidea ematen digu istorio honi jarraipena emateko. Horretarako idazketa edo kontaketa tailerra antolatu dezakegu.



BEGIRATU LEIHOTIK!
Egilea: Katerina Gorelik
Itzultzailea: Amets Santxez Munain
Ibaizabal, 2021
ISBN: 978-84-1370-175-2
60 orrialde
Album ilustratua

Misterio eta intrigaz betetako liburu ilustratua da. Formatu handikoa da, irudiek orrialde osoak hartzen dituzte eta testuak ere neurri handikoak dira. Orri bakoitzean ipuin tradizioaletako pertsonaia harrigarrien etxeak ikusiko ditugu, kanpoko aldea eta leiho baten bitartez barnealdeko zati bat ere bai. Egoera beldurgarriak edota samurrak irudituko zaizkigu baina, benetan irudikatzen duguna ote dago leihoaren beste aldean? Lehenengo etxea oso polita da, lore ederrez apainduta dago eta adineko andre xarmant bat bizi da bertan. Orrialdea pasa eta etxe barruan sartutakoan ordea, sorgin beldurgarri bat agertuko da. Hurrengo etxea berriz, sutan dagoela irudituko zaigu baina herensuge bat baino ez da, gosaritarako opilak txigortzen dabilena. Sorpresaz betetako album honek irakurlearen irudimenarekin jolasten du. Irudiek indar handia dute, oso adierazkorrak eta deigarriak dira. Lan zoragarri hau 2021eko Boloniako Ilustratzaileen Erakusketako irabazleen artean dago.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Bere horretan kontatzearekin, hau da, orrialdez orrialde gertatuko dena aurreikustera jolastuz, pentsatzeko tartea utziz, ederto funtzionatzen duen obra dugu hau. Hortik aurrera, aukera ugari ditugu hariari tiraka segitzeko. Adibidez, guk geuk beste kapitulu bat sortu genezake. Eskulanak ere egin ditzakegu: leihotxo berriak sortu eta barruan nahi dugun hori marraztu, ipuinaren antzeko efektua sortuz. Egilearen lekuan, beste aldean, jartzeko jolas-ariketa izan daiteke.




NOR IZAN NAHI ZENUKE?
Egilea: Arianna Papini
Itzultzailea: Fernando Rey
Pamiela-Kalandraka, 2021
ISBN: 978-84-9172-234-2
34 orrialde
Album ilustratua

Irudimenarekin jolastera eramango gaitu album honetako kontakizunak. Rebekak emango dio hasiera eta jarraian agertzen diren pertsonaiek bestelakoa izateko desioa adieraziko dute, diren bezalakoak izanda egin ezin dituzten gauzak egin ahal izateko. Rebekak arraina izan nahiko luke isiltasuna entzuteko eta itsasoan libre igeri egiteko, arrainak hontza izan nahi luke hegan egiteko, hontzak krokodiloa izan nahi luke egunez ikusteko eta lurrean ibiltzeko... Narrazio-egitura errepikakorra du oinarri eta ipuina modu zirkularrean amaituko da Rebekarengana bueltatuz. Bildumaren izenak dioen bezala, amets egiteko liburu horietako bat da. Planteamendu narratiboa xumea da eta ilustrazioak egiteko collagearen teknika erabili du. Irudi plano eta eskematikoak dira, kolore eta testura leunekoak. Album honen berezitasuna da goitik behera irakurtzen dela.

Idazle eta ilustratzaile italiarraren lan hau Nazioarteko IV. Compostela Sarian finalista izan zen 2011n, jatorrizko bertsioa agitaratu zenean.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: “Nor izan nahi zenuke?” galderari erantzunez, ilustrazio edota edizio tailer bat egin dezakegu eta, guk nor izan nahi genukeen azalduz, gure liburutxoak sortu. Horrez gain, oso liburu aproposa da tertulia literario bat egiteko eta hainbat galdera planteatu ditzakegu: Zergatik amesten dugu beste zerbait izan nahi dugula? Posible al da pertsona bat animalia bihurtzea? Eta pertsona bezala aldatzea? Aldatzen ote gara gu?




AUTO-STOPEAN
Egilea: Guilherme Carsten
Itzultzailea: Xabier Olaso
Pamiela-Kalandraka, 2021
ISBN: 978-84-9172-224-3
28 orrialde
Album ilustratua

Gurpilen gainean gertatzen da ipuin errimatu dibertigarri hau. Abentura umoretsua da eta egoera barregarri ugari gertatuko dira kotxe baten barruan. Surflari ausartak kotxea hartu du hondartzara joateko eta bidean auto-stop egiten ari diren zein baino zein bidaiari xelegeagoak batzen joango zaizkio: urpekari maitemindua, heroi nekatua, kaiman aspertua, lapur ezkutua... baita Txanogorritxo ere. Eta bidaiari bakoitzak soinean daramatzan tramankuluak kotxe gainean pilatzen joango dira. Bukaera harrigarria izango du kontakizunak. Irudiak oso alaiak eta kolore bizikoak dira, orrialde bikoitz osoak hartzen dituzte. Pertsonaiak oso espresiboak dira, karakterizazio bikaina egin du egileak. Haurrekin batera irakurritz ongi pasatzeko eta barre egiteko abentura polita da eta aldi berean ilustrazioekin gozatzekoa, estetikoki oso erakargarria baita.

Hainbat sari jaso ditu lan honek: 2017an Ohorezko saria Album Ilustratuen Nazioarteko Serpa Sarietan (Portugal) eta 2019an Golden Plaque Statue saria (Eslovakia).

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasgelan boz gora kontatzeko istorio aproposa da. Kontatu ahala, ikasleen hipotesi eta irakurketei bidea eman diezaiekegu, lerro artean gertatzen ari denak zentzua hartu dezan. Ahozkotasanari bide emanez, amaieran bigarren trama horiek osatu daitezke.



AMONA TOMAXA ETA SAGARRA
Idazlea: Ixabel Agirresarobe
Ilustratzailea: Iñaki Martiarena
"Mattin"
Denonartean, 2021
ISBN: 978-84-17940-58-4
32 orrialde
Album ilustratua

Ipuin honek amona Tomaxaren abentura berri bat kontatuko digu. Errimekin osatutako kontakizunaren bidez, Tomaxak bere gosea asetzeko sagarraren bila egindako bidea ezagutuko dugu, ezustekoz beteta egongo den bidea eta irribarre bat edo beste eragingo diguna. "Amona Tomaxa gosetu zen eta jan nahi izan zuen sagarra. Bidean aurkitu zuen azkonarra. Gero, muxarra. Azkenean, saguzarra. Hasi zuen zaparra...". Ahots gora kontatzeko ipuin aproposa da, irudiak pixkanaka erakutsiz. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria eta aktorea izanik eskarmentu handia du ahozkotasanean, testuan islatzen den bezala. Mattinek, bere ohiko estiloari jarraituz, ingerada beltz lodia duten irudiak sortu ditu, kolore bizikoak. Irudi bakoitzak orri osoa hartzen du eta azpiko testuak esandakoa irudikatzen dute.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Errimak sortzera animatu gaitzake liburuak. Hortik tiraka, errima bitartez sortu diren bestelako istorioak gelaratu ditzakegu: "Errima errebeldeak" (Roald Dahl), "Hartzak" (Ruth Krauss), "Hamaika andere ausart" (Oli), "Max eta Moritz" (Wilhelm Busch)...



LA COURSE AU GÂTEAU
 Egilea: Thé Tjong-Khing
 Les albums Casterman, 2018
 ISBN: 978-2-203-16684-4
 26 Orrialde
 Album mutua

Hitzik gabeko album honetan irudien bidez kontatzen da ipuina. Pertsonaia ugari ditu eta istorioak elkarrekin gurutzatzen dira. Arratoi pare batek Txakur jaun-andreen pastel ederra lapurtuko dute, untzikumeak bere panpina galdu du, Katu jaunak Txerri familia ezagutuko du, tximuak Katu andreaki kapela kenduko dio... Istorio hauek eta beste hainbeste deskubrituko ditugu Txakur jaun-andreak arratzen atzetik korrika hasi eta pastela berreskuratzen saiatzen diren bitartean. Kontakizun harrigarri eta dibertigarri batean nahasiko dira guztiak. Ipuina liburuaren azalean hasten da eta ilustrazio koloretsuek orrialde bikoitz osoak hartzen dituzte. Akwarelaz egindako irudiak dira, xehetasun handikoak eta mugimendu itxura ematen dutenak. Oso ilustrazio umoretsuak dira. Album mutua izanik, elkarrekin irakurtzeko aproposa da eta jolaserako aukera ematen du, haur zein helduen sormenerako gaitasunak bultzatuz.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu mutuak beti dira aproposak lehen tertulia literarioak abiatzeko. Ikasleei liburua erakutsi ondoren ea zenbat istorio kontatzeko gai diren.

Liburua lantzeko hainbat proposamen:
http://educalire.fr/La_course_au_gateau.php



BASOAN BARN'A
 Egilea: Ainara Azpiazu "Axi"
 Elkar, 2021
 ISBN: 978-84-1360-086-4
 34 orrialde
 Album ilustratua

Kontakizun hunkigarria da honakoa. Neskatila bat da istorioaren narratzailea. Aitona ehiztaria izan zen gaztetan eta orain argazkilaria da, basoko animalien argazkiak egiten ditu. Hauek ikusita, bilobari irrika bizia sortu zaio basoko animalia horiek ezagutzeko eta txangoa egingo dute elkarrekin. Zuhaitzen artean abiatu dira elkarrekin baina halako batean aitona galdu egingo da eta neskatilak bere bila igaroko du eguna. Ipuinaren bukaeran sorpresa ederra hartuko dugu. Egilearen hitzetan, bertako animaliengana hurbiltzeko gonbitea egiten du liburuak. Esaldi laburrak erabili ditu eta testuaz gain, irudiak irakurtzeko liburua ere bada, hitzen eta ilustrazioen arteko konbinazio bikaina eginez. Irakurleak jostatzeko album zoragarria da.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu honen ardatzetako bat argazkilaritza izanik, gure egunerokoa jasotzen duten argazkiak egin eta, liburuan bezala, horiek gure gelan jarri ditzakegu. Argazkiekin ez bada, marraztu ere egin dezakegu, hori bai, liburuan aitona den etxean agertzen den horma hori simulatzeko markoak egin beharko dizkiegu marrazkiei.


Bestalde, aitona eta ilobaren arteko harremana aintzat hartuta, lanketa egiteko aukera anitz ditugu. Esaterako, tertulia bat egin dezakegu testu hau oinarri hartuta: "Ehiztaria zen gaztetan gure aitona. Orain, berriz, argazkilaria da". Aldaketa bat ematen da hemen, zergatik? Zergatik aldatzen gara? Nola aldatzen gara?



OLIVIA ETA MAMUA
 Idazlea: Elvira Lindo
 Ilustratzailea: Emilio Urberuaga
 Itzultzailea: Ane Sedano
 Ikasmina, 2021
 ISBN: 978-84-9855-839-5
 26 orrialde
 Album ilustratua

Gaueko iluntasunaren beldurrari buruzko ipuin laburra da. Letra larriz idatzita dago eta lehen irakurleentzat aproposa da. Olivia da kontakizun honetako protagonista, sei urte ditu eta lo egitea denbora-galtze hutsa dela iruditzen zaio. Ohera sartu orduko denbora pasatzeko egin ditzakeen gauza pila bururatzen zaizkio. Gurasoei deika hasten da baina etengabe lotara joateko agintzen diote. Logelako itzalen beldur da. Gau batean, argia itzali orduko, mamu bat dagoela irudituko zaio eta garrasika hasiko da. Segituan agertuko da aita eta bere haurtzaroan bizitako historia bat kontatuko dio, Oliviak dituen beldur horiei aurre egiten lagunduko diona. Ilustrazioek testuak esandakoa irudikatzen dute. Trazu indartsua dute eta koloreen arteko konbinazioek oso ongi adierazten dituzte pertsonaien emozio desberdinak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Lotara joan aurreko momentuari buruz hitz egiten digun liburu honek bakoitzaren lo aurreko momentuaz pentsatzeko aukera ematen digu eta gure esperientziak gainontzekoekin konpartitzeko aitzakia izan daiteke. Elkarri kontatzeaz gain, gure lo aurreko eszena irudikatu dezakegu (marratuz, hitzekin, biek...) eta eszena guztiekin liburu kolektibo bat sortu. Tertulia baterako ere oso aproposa da, loa eta loaren bueltan gertatzen diren horiek beti izan baitira interesgarriak pertsonentzat.



KROKODILOA
 Idazlea: Giovanna Zoboli
 Ilustratzailea: Mariachiara di Giorgio
 Txalaparta, 2021
 ISBN: 978-84-18252-74-7
 26 orrialde
 Album mutua

Komiki formatua duen hitzik gabeko albuma da. Kontakizunari zentzua hartzeko ezinbestekoa da jatorrizko bertsoaren izenburuari erreparatzea, "Professione coccodrillo". Lanbidez krokodiloa den pertsonaia baten eguneroko errutina kontatzen digu binetaz bineta. Goizero bezala zazpietan jaikiko da, jantzi, gosalduek eta eguneroko paseoari ekingo dio bizilagunak eta dendariak agurtuz. Lanerako bidean metroa hartuko du eta erosketaren bat ere egingo du. Lantokira iristen denean sorpresa itzela hartuko dugu. Irribarre ugari aterako dizkigu protagonistak. Irudiak xehetasun handikoak dira eta ez dute hitzen beharrik istorioaren haria jarraitzeko. Tamaina desberdinetako enkoadraketekin eta sekuentziazio bikain batekin album original eta irudimentsu bat sortu dute egileek. Nabarduraz jositako album zoragarria da, behin eta berriz irakurtzeko modukoa.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburuaren azkeneko orrialdeari begiratu, hainbat galdera egin ditzakegu: Nola sentitzen da krokodiloa? Bere lana gustuko al du? Zer egiten dugu animaliekin? Liburu honek ezinbesteko solasaldi filosofikoa sortzen lagunduko digu.



TXOMIN TXAPEL
 Idazlea: Pello Añorga
 Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
 Elkar, 2021
 ISBN: 978-84-1360-009-3
 26 orrialde
 Narrazio liburua

Narrazio honek norberaren nortasunari buruzko hausnarketa egiten du. Protagonista Txomin Txapel izeneko pailazo bat da. Txapela jantzita ibiltzen da beti eta oso ezaguna da. Pailazo atsegina da oso eta kalean topatzen duen oro agurtzen du txapela erantzita. Oso jolastia ere bada eta haur guztiek izugarri maite dute. Bizipoza sortzen duela esaten dute. Baina halako batean bere buruari galdezka hasiko da zergatik ote den horren ospetsua. Txapelarengatik dela uste izango du eta kezka sortuko zaio txapelik gabe ez delako inor. Txapela galtzeko beldurrak eraginda, lokarri batekin buruari estu lotuta jarriko du. Baina horrela ezin du jendea agurtu ezta jolastu ere. Eta gero eta kezkatuago eta tristeago egongo da, soka hori askatzen duen arte. Hizkuntza aberatsa du testuak eta oso irakurterraza da. Irudiak trazu beltz lodikoak dira, koloretsuak eta alaiak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasleek euren kabuz irakurtzeko liburu aproposa da. Ondoren, tertulia literario bat egiteko balio dezake: Zer iruditu zaizue istorioa? Txomin Txapel bezalakorik ezagutzen al duzue? Dohain berezirik duzuela uste al duzue? Txomin Txapelaren arazoa zein da? Konpontzen al du?



MAX ETA MORITZ
 Idazlea: Wilhelm Busch
 Itzultzailea: Pello Zabaleta
 Pamiela, 1990
 ISBN: 84-7681-108-X
 65 orrialde
 Narrazio liburua

Umore beltzez betetako narrazio laburrez osatutako liburua da. Errimetan idatzitako istorio hauetan Max eta Moritz mutikoen egindako zazpi barrabaskeria edo bihurrikeria kontatzen dira. Inork ezin die ihes egin bikote honen gaiztakeriei: oiloak zaintzen dituen alarguna, auzoko jostun sonatua, maisu jauna, osaba zaharra eta okin zuhurra izango dira barrabaskerien biktima. “Ah, zer ez den entzun eta esaten sarri haur bihurriak direla nardagarri! Halakoak dira anitz adibidez Max eta Moritz. Irakatsi onen bidez onbidera joan ordez sarri guztiei adarra jotzen biak ziren dibertitzen.” Kontakizuna irudikatzen duten ilustrazioek komiki itxura ematen diote lan honi. 1865ean idatzitako lan hau munduko ipuin ospetsu eta dibertigarrienetakotzat hartu izan da.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasleei boz gora kontatzeko istorio labur dibertigarriak dira. Ondoren, Max eta Moritzen abentura barregarri gehiago asmatu ditzakete ikasleek. Baliogarria izan daiteke ondorengo pertsonaia bihurri edo barregarrien zerrenda bat egin eta liburu horiek gelaratzea, adibidez, Heinrich Hoffmannen “Peru Tximaluze” (“Struwwelpeter”).




SUMENDIAK

Egileak: Fleur Daugey, Bernard
Duisit eta Tom Vaillant
Itzultzailea: Amets Santxez Munain
Ibaizabal, 2019
ISBN: 978-84-9106-781-8
20 orrialde
Dibulgazio liburua

Pop-up album honek sumendien inguruko gaiak lantzen ditu. Hala nola, sumendien jokaera, hauen inguruan dauden kondairak, Vesuvioren eztanda, bolkanologoek zer egiten duten, sumendietan bizi diren animalia eta landareak eta beste planeta batzuetako sumendiak izango ditu aztergai. Atal bakoitzak orrialde bikoitz osoa hartzen du eta protagonismo guztia hartzen dute kolore bizi-biziko irudiek. Testuak laburrak eta ulerterrazak dira, azalpen argiak eta informazio interesgarria eskaintzen dute. Ilustrazioez gain, informazio-testuak hobeto ulertzen laguntzen duten bost pop-up irudi dakartza, efektu berezi eta guzti. Estetikoki liburu erakargarria da eta gaiari buruzko jakin-mina pizten du.

Irudiak Tom Vaillant ilustratzailearenak dira eta testuak Fleur Daugey etologo, kazetari eta idazle frantziarrarenak. Azken honek naturaren ezagutzari buruzko hainbat liburu idatzi ditu haur eta gazteentzat.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ezagutza liburu honetan sumendien inguruan kontaktzen dena modu desberdinetara erabili dezakegu, adibidez, testuinguru errealekin kontrastatzeko. Bestalde, liburuko pop-up figura horiek imitatuz, eskala handiagoko irudiak sortzeko tailerra egin dezakegu ikasgela apaintzeko. Pop-up berriak ere sortu ditzakegu, hau da, beste gai bat hartu, esaterako zuhaitzak, eta gai horrekin antzeko liburu bat egiten ahalegingindu gaitzeko gelako proiektu bezala.



HANKA, MOKO ETA BUZTAN

Idazlea: Xabier Olaso
Ilustratzailea: Sandra Garayoa
Ikaslar, 2021
ISBN: 978-84-18410-40-6
65 orrialde
Igarkizunak eta aho-korapiloak

“Asmazan, asmazak... Zer ote dago liburu honen baitan? Animalia bitxi ugari, hanka, moko eta buztan...”. Animaliak protagonista dituzten ipuin laburrak, igarkizunak, aho-korapiloak, esaera zaharrak, haikuak eta poemak biltzen ditu album ilustratu honek. Irakurketa dibertigarri eta anitza egiteko aukera eskaintzen du. Esaterako, atzeko aurrera irakurtzeko poemak ditu, liburuari buelta emanda irakurri beharrekoak edota bokalak falta dituzten testuak eta kolorearen arabera osatzekoak. Liburuaren bukaeran daude asmakizunen erantzunak. Irudiak kolore bizi-bizikoak dira, oso erakargarriak eta iradokitzaileak. Hitzen eta ilustrazioen arteko konbinazio bikaina sortu dute. Gainera igarkizunak asmatzeko pista txikiak ematen dituzte irudiek. Elkarrekin gozatzeko eta ondo pasatzeko liburu da, irri eginaraziko digu. Lehenengo irakurleak trebatzen ez ezik, hizkuntzan aberastu eta arteaz gozaten ikasiko dugu lan eder honekin.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Jolas-liburu honekin egunero jolas bat planteatu daiteke. Olerkiak, asmakizunak, haikuak eta ipuin laburrak izanda, irakasleak zenbait aukeratu eta egunero aurkeztu ditzake. Haurrei errepikarazi, ozen irakurri, erritmoa eman eta koreografia bat sortuz dantzan eginarazi... Bakoitzak bere estiloan, inor imitatu gabe, zuku atera diezaioke testu laburren bilduma eder honi, egunean bat irakurri. Ondoren, zatika irakurtzeko eman diezaietegu haurrei.



UR ETA LUR
Idazlea: Yolanda Larreategui
Ilustratzailea: Eider Eibar
Erein, 2021
ISBN: 978-84-9109-721-1
44 orrialde
Narrazioa

Abenturazko narrazio labur honetako protagonistak Lur apoa eta Ur igela dira. Lur apoak bere bizitzako ametsa egia bihurtzea erabakiko du bere lagun minena den Urtzi urtxintxak bultzatuta. Motxila prestatu eta munduko urmaelik zoragarrienaren bila abiatuko da. Bidea, ordea, ez da guztiz lasaia izango eta hainbat zailtasuni aurre egin beharko die. Baina lagun berri bat ere egingo du, Ur igela, pertsonaia benetan arraroa, xelebrea eta oso maitagarria. Biek elkarrekin lortuko dute euren ametsak betetzea. Idazlearen hitzetan, ipuin honekin adiskidetasuna, elkarlana, bizitzan aurrera egiteko grina eta umorea sustatzen dira. Eider Eibarrek egindako ilustrazio samur eta ederrek ezin hobeto irudikatzen dituzte kontakizun honetako pertsonaiak eta eszena desberdinak. Liburu honek 39. Lizardi saria eskuratu zuen 2020an.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu hau irakasleak ozen irakurtzeko aproposa da. Ondoren, irakurketa autonomora pasa daiteke, baina aurretik aurkeztuta. Pertsonaietako batek, batzuetan, hitzen bokalak aldatzen ditu eta, dibertigarria izan daitekeen arren, irakurketa zaildu dezake. Adibidez, honelako zatiak ez dira irakurterrazak:
“- (...) Urak eraman dit lehentxeago.
- Lehentxeego? Lehentxeego esen deze?”



ATA PANK ETA ATE PUNKY. DESIOA
Idazlea: Bernardo Atxaga
Ilustratzailea: Mikel Valverde
Pamiela, 2021
ISBN: 978-84-9172-254-0
59 orrialde
Narrazio liburua

Punky samarrak diren bi ahateen bigarren abentura biltzen du liburu honek. Ata Pank eta Ate Punky bi ahate bitxi dira, lotsagabeak eta tontolapiko samarrak. Udako arratsalde bero batean, bizileku duten patio zikinean eserita daude asperdurak jota. Europako Birako txirindulariak auzotik pasa behar dutela eta, helikopteroak noiz ikusiko zain daude zerura begira. Halako batean, Nelo lagunak bere estalpera gonbidatuko ditu animalien migrazioari buruzko dokumental bat ikustera. Ate Punkyri migratzeko gogoia piztuko zaio eta Ata Pankek, hasiera batean ezezkoa esango badio ere, bat egingo du desio horrekin, horrela auzoko izar bihurtuko direla uste baitu. Erronka honi ekin aurretik auzoko ile-apaindegira joango dira gandorrek tente jarri eta euren asmoen berri ematera. Antzoki Nagusiko teilatuan kokatuko dira abiatzeko prest eta plaza jendez lepo dago. Baina ahateak agurtzeko bildu ote dira auzoko guztiak plazan? Ilustrazioek lagundutako kontakizun hau umorez betea dago eta irribarrea eragingo digute.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Irakasleek boz gora edo hurrek bakarka erraz eta arin irakurtzeko modukoa da. Ondoren, tertulia literario batean, lehenengo liburuarekin lotura eginez, bereziki pertsonaiak lantzea proposatzen da: animalia humanizatuak, animalien iruditeria, metafora eta sinbologia... Bestalde, Bernardo Atxagaren “Banbulo” edo “Xola” txakurraren bilduma klasikoak ere gogora ditzakegu eta erreferentziak landu.



AZKEN OTSOA

Idazlea: Sébastien Perez
Ilustratzailea: Justine Brax
Itzultzailea: Patxi Zubizarreta
Ibaizabal, 2020
ISBN: 978-84-9106-940-9
30 orrialde
Album ilustratua

Formatu handiko ipuin ilustratua da. Kontakizun honetako protagonista Milo izeneko mutiko bat da, herriko arkulari ikasleen artean onena. Otsoaren uluak entzuten dituztenean, ikara nagusituko da herrixkan. Izan ere, herritarrek beldurrez gainezka oroitzen dute otso goseti eta gizakien arteko Gerrak Handiak utzitako ondorio ikaragarriak. Milok bere burua eskainiko du piztia akabatzeko eta lurralde ezezagunetan barna abiatuko da, aita eta anaia galdu zituen lekura, azken otsoaren bila. Bakardadea izango du bidelagun baina aurrera egin ahala, beldurra baretu eta gero eta indartsuago eta ausartago sentitzen hasiko da. Azkenean, aurkituko du otsoa eta ezusteko amaiera izango du istorio eder honek. Irudiak orrialde baten tamainakoak edota orrialde bikoitzekoak dira eta kolore zuri eta urdinak dira nagusi, detaile distiratsuekin. Ipuinean parte hartu gabe ere, oso esanguratsuak eta deigarriak dira. Ipuinarekin ez ezik irudiekin gozatzeko liburu zoragarria da.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ahots gora irakurtzeko liburu aproposa da, bere irudi zoragarriak oso lagungarriak dira irakurketa ozena egiteko. Asko disfrutatzen den liburua izanik, istorioa bukatzerakoan, ikasleei galdetu diezaiekegu zer egingo luketen protagonistaren egoeran suertatuko balira.



BARRUKO HOTSAK ETA BESTE SOINU TXIKI BATZUK
Idazlea: Leire Bilbao
Ilustratzailea: Maite Mutuberria
Pamiela, 2021
ISBN: 978-84-9172-250-2
119 orrialde
Poesia

Poema sorta honek haurrak bere egunerokoan lagun izaten dituen hainbat soinu, kanpokoak zein barnekoak, biltzen ditu. Ume bat esnatzen denetik lokartzen den arte, entzun bai baina aditzen ez diren hainbat hots daude. Poesiaren bitartez haurraren egunari soinu banda bat jarri nahi izan diote egileek. Hots horiek entzuteko, onomatopeiak ez ezik, poema bakoitzak kaligrama bat du. Hamar ataletan barna garatzen dira eguneko momentu desberdinetako hotsak: esnaera, gosariko doinuak, bainugelakoak, arropa janzterakoan, eskolarako bidean eta eskolan bertan, etxeko zaratotsak eta lotara joan aurrekoak. Atal bakoitzak kolore desberdinetako ilustrazioak ditu hasieran eta bukaeran. "Garbitu ondo, zorroztu bizkor, zabaldu guztiz belarriak... zure egunaren soinu banda aditu arte!". Albumaren amaieran datorren QR kodearen bidez, Xabier Zabala musikariak liburu honetarako beren-beregi sortutako egun bateko soinu banda entzun daiteke. Liburu zoragarria da ahots gora edota isilean irakurtzeko.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Olerki hauek egokiak dira errezitatzeko, irakurtzeko, entzuteko zein dantzatzeko. Batzuetan, testuaren edukiaren forma hartzen dute, bestetan, soinua adierazten dutenez, ederra izan daiteke olerki hauei soinua jarri eta ozen errezitatuz dantzatzeko. Laburrak direnez, idaztera pasatzeko baliagarriak izan daitezke.



MAMUAK ETA BIHOTZAK.
KLARISA ETA K TALDEA, 3
Idazlea: Arrate Egaña
Ilustratzailea: Marimar Agirre
Erein, 2021
ISBN: 978-84-9109-709-9
160 orrialde
Narrazioa

Abentura eta misteriozko eleberri hau Klarisa eta K taldearen hirugarrena da eta hamaika atal ditu. Protagonista nagusia Klarisa Lupabitx detektibea da eta gainontzeko pertsonaiak K taldea osatzen duten lagunak dira: Marko Ostender espioi ohia; bere biloba Bertol, desagertzeko gaitasuna duen mutikoa; honen lagun mina Maider, detektibe izateko prestatzen ari den neska adimentsua; eta azkeneko kasuan batu zitzaizkien bi taldekide berriak, Fermin eta bere lehengusina Valentina. Gabon gaua da eta Klarisaren etxean atera ezinik geratuko dira elur-ekaitz bortitz baten ondorioz. Egoera horretan Klarisa bere haurtzaroko historia kontatzen hasiko da. Bihotzeko arazoak zituela eta Parisko ospitale zahar batean egindako egonaldian, bertako lagunekin korridoreetan zebilen mamu baten misterioa nola argitu zuten kontatuko du. Aldi berean, Klarisaren etxean bertan gertakari bitxi batzuk K taldearen trebetasunari desafio egingo diote.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasleek euren kabuz irakurtzeko moduko eleberria da. Klarisa bildumako gainerako liburuak ere gelaratu daitezke. Detektibe-nobela edo poliziakoa genero gisa ezagutu eta adibide gehiago bilatzeko tartea hartu daiteke: “Enigmak” (Victor Scandell), “Sherlock Holmesen abenturak” (Arthur Conan)...



HILI
Idazlea: Uxue Alberdi
Ilustratzailea: Araiz Mesanza
Elkar, 2021
ISBN: 978-84-9027-764-5
52 orrialde
Album ilustratua

Heriotza du hizpide album ilustratu honek. Hiltzearen ideiarri buruzko gogoetak, burutazioak eta galderak biltzen ditu. Galdera-sorta, dialogo txiki, poema eta kaligramen (hitzekin sortutako irudiak) bidez hiltzearen esanahiari buruzko hausnarketa desberdinak egingo dituzte pertsonaiek. Hauek bi dira, jakin-min handia erakusten duen neskatila indartsu bat eta bere panpina, bere ispilu eta laguntzaile izango dena. Batzuetan bakarrizketak izango dira eta bestetan euren arteko elkarrizketa. “Egunen batean denok hilko gara. Gainerakoetan ez, ordea. Zer dago hil eta gero? Ezer ez. Eta pixka bat urrunago?”. Irudiak zuri-beltzean daude eta espazio zuri ugari ditu. Zuritasun honek sosegua transmititzen digu eta arnas handia ematen dio gaiak sortu dezakeen egonezinari. Idazlearen hitzetan, irudimenak hiltzearen ideiarekin bizitzen laguntzen dio. Bere esanetan, ez da zerbaitetarako liburu bat, bi pertsonaiaren arteko solasaldi isil bat baizik, hainbat emozio biltzen dituena.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Tertulia filosofiko bat egiteko liburu bikaina da. Bertan agertzen diren galderak erantzun asko eragin ditzakete, baita galdera gehiago ere. Beraz, ikasleen artean pentsamendu kritikoa eta hausnarketa sustatzeko guztiz baliagarria izan daiteke. Sormenarekin lotu nahi izanez gero, galdera horietatik abiatutako narrazio labur bat sortu genezake. Liburuari loturiko bideo laburra YouTuben: <https://youtu.be/FCgwca7sHW0>



ASTERIX ETA GRIFOA
Egileak: Jean Yves Ferri, Didier Conrad
eta Thierry Mébarki
Itzultzailea: Maddalen Arzallus Antia
Salvat, 2021
ISBN: 978-84-696-6389-9
46 orrialde
Komikia

Asterix eta Obelixen ohiko abentura baten aurrean gaude. Oraingo honetan erromatarrek espedizio bat egingo dute Barbaricumera, sarmaziarren lurraldera, Grifo izenez ezaguna den izaki sakratuaren bila. Horretarako gatibu hartu duten sarmaziar amazona baten laguntza izango duten ustearekin. Bitartean, Asterix, Obelix eta Panoramix galiarrak sarmaziarrengana abiatuko dira, hauek laguntza eskatu baitiete erromatarrek bahitu duten emakumea askatzeko. Herri honek badu berezitasun bat, gizonezkoak etxearen eta haurren zaintzaz arduratzen dira eta emakumeak gerlari nomadak dira. Guztien artean erromatarrei aurre egin beharko diete. Hainbat gorabeheraren ondoren, amaiera ona izango du abentura honek. Abenturazale eta komikizaleek oso gustura irakurriko dute Asterixen historia berri hau. Nabarmenezko alderdietako bat da sarmaziarren dialogoetan E hizkia alderantziz agertzen dela, hizkuntza desberdintasuna adieraziz, baina honek ez du trabarik egiten irakurtzerakoan.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Komikigintza lantzeko aukera eskaintzen du liburuak. Bestalde, Asterix eta Obelixen bildumako gainerako liburuak gelaratu eta bi pertsonaia hauen unibertsoa ezagutu dezakegu: komikiak, filma, marrazki-bizidunak... Komikigintza lantzeko baliabideak: <http://www.komikipedia.eus> eta <https://www.amarauna.euskadi.eus/baliabidea/> komikigintza



GROAU
Idazlea: Yolanda Arrieta
Denonartean, 2021
ISBN: 978-84-17940-62-1
127 orrialde
Antzerkia

2004an argitaratu zen lehen aldiz antzezlan hau, hiru ekitalditan banatuta dago eta hauetako bakoitzak hainbat eszena ditu. Pertsonaia nagusia Mitsi izeneko katakumea da, beltza, argala eta oso ahula. Bere ahizpa Matsus aldiz, zuria, ederra eta dotorea da. Gainera oso ondo kantatzen du, Mitsik ez bezala. Honek erabat desafinatzen du eta ez daki miau esaten ere, horren orde groau egin eta arraro hitz egiten du. Amak guztiz babesten badu ere, Matsusek etengabe zirikatzen du eta izebak ezin du jasan. Erabat baztertuta eta bakarrik sentitzen da eta etxetik alde egitea erabakitzen du basoan barna. Hemen lagun berriak egingo ditu, Katagorrina, Erbiron erbia eta Azerito. Eurekin egon ondoren, pixkanaka konfiantza irabaziz joango da eta gero eta indartsuago sentituko da. Txakurrekin bizitzen bukatuko du etxera itzuli aurretik. Mitsi bere nortasunaren bila dabilen gaztea da eta bidaia honekin ikasiko du bere buruarengan ustea izaten. Istorioak aurrera egin ahala gero eta ausartago eta sendoago bihurtzen dela ikusiko dugu.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Antzerkigintza lantzeko liburu aproposa da. Irakurketa burutu ondoren (taldeka, bakarka, boz gora...), testu dramatikoaren eszenaratzeko proiektua burutu daiteke, kontuan izanik arte eszenikoko lengoia guztiak (interpretazioa, argiztapena, eszenografia, mugimendu eta irudiak...).



LURREKO PAISAIA GALDUAK
Egilea: Aina Bestard
Itzultzailea: Oskar Arana Ibabe
Txalaparta, 2021
ISBN: 978-84-18252-68-6
80 orrialde
Dibulgazio liburua

Lurraren historia kontatzen duen album ilustratua da. Hamar ataletan banatuta dago. Hasieran, lurraren historia geologikoa islatzen duen denboraren lerroa aurkeztu eta gure planetaren historia ezagutzeko erabiltzen diren aztarnak, fosilak eta haitzak, deskribatzen ditu. Ondorengo atalek garai bakoitzean emandako aldaketak azaltzen ditu: planetak eta izarrek sorrarazi zituen Big Bang eztanda handia, Lurraren formak jasandako aldaketak, lehenengo biziaren hasiera itsasoaren hondoa, landare eta animalia espezie berrien hedatzea, bizia uretatik lurrera zabaltzea, narrasti handien eta dinosauroen aroa, eta, azkenik, ugaztunen nagusigoa eta hominidoen sorrera. Azalpen hauek guztiak testu labur eta irudien bidez ematen dira. Irudiak oso esanguratsuak eta zehaztasun handiz eginak dira, XIX. mendeko irarlan eta litografien itxura dute. Askotariko ilustrazioak ageri dira: panoramikoak, gardenkiak eta hegala jasota ikustekoak. Oso edizio berezia eta zaindua du, artelan zoragarria dela esan dezakegu.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Bartzelonako Zientzia Museoaren laguntzarekin ilustratzaileak marrazkiak egin ditu grabatuaren teknikan oinarrituta. Grabatua zer den eta bere inspirazio iturriak zeintzuk izan diren ezagutzeara abentura zirraragarria izan daiteke.



ESTHER FERRER ETA DENBORA. (IA) GUZTIA MOZTU ETA ITSAS DAITEKE
Idazlea: Aintzane Usandizaga
Ilustratzailea: Aran Santamaria Pamiela, 2021
ISBN: 978-84-91722-48-9
44 orrialde
Album ilustratua

Esther Ferrer artista donostiarrak denboraren inguruan egindako lanak oinarri dituen fikziozko lana da hau. Euskal Herriko artista garrantzitsuenetako bat izanik, album honen helburua da bere lanera gerturatzea. Askotariko gaiak landu izan baditu ere, egileek denbora kontzeptuaren hariari jarraitzea aukeratu dute. Jolas modura sortu dute lan hau. Fikziozko Esther Ferrer pertsonaiak denbora harrapatu nahi du bere modura moztu eta itsasteko. Horretarako lau planez osaturiko Plana osatuko du, batek huts eginez gero beste hiru geratuko zaizkio eta. Lortuko al du denbora oso-osorik biltzea? Ilustratzaileak collage teknika erabili du eta nahasketa handiko irudiak sortu ditu, artistaren estetika gogoraziko diguna. Irakurlea ere denbora harrapatzeko saiakeran murgilduko da hariari segika. Egileen hitzetan, liburu hau ez da Ferrerren biografia bat, artistaren lengoia pikturikotik edo unibertso kontzeptualetik abiatutako ipuin bat baizik.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Esther Ferrerren lana ezagutzeko aitzakia ezin hobea emango digu liburu honek. Arteen murgildu, performancearen kontzeptua ezagutu eta praktikan jartzea lortzen badugu, bukaera borobila emango genioke album ilustratu honi.




EMAKUME GUZTIOK

Egileak: Elizabeth Casillas, Higinia Garay
Itzultzailea: Bego Montorio
Astiberri-Mundubat, 2020
ISBN: 978-84-18215-09-4
63 orrialde
Komikia

El Salvadorreko lau emakumeen historia kontatzen duen komiki ederra eta hunkigarria da. Mariana, Cynthia, Maria Teresa eta Elsi dira protagonistak, abortua leporatuta, espetxean egon dira hainbat urtez eta etxera itzultzean birgizarteratzeko zailtasunak dituzte. Tratu-txarrak, jazarpena, bazterketa eta bakardade handia jasan behar izan dituzte. Izan ere, El Salvadorreko abortuaren aurkako legea munduko zorrotzenetako bat da eta oso gogor zigortzen du haurdunaldia etetea arrazoiak edozein direla ere, bai borondatezkoa baita berezkoa ere. Haurra hil izana leporatu eta hilketa larriagatik berrogei urte arterainoko kartzela zigorrak ezartzen dizkiete. Egileek El Salvadorrera bidaia egin zuten, Mundubat fundazioaren proiektuaren baitan, eta bertako emakumeen testigantzak bildu zituzten. Honen emaitzak eleberri grafiko hau eta La historia de todas nosotras dokumentala izan dira. Benetako historiak dira eta bizipen bortitz horiek zirrara handia eragingo digute. Gaia gogorra bada ere, irudiak oso koloretsuak eta biziak dira.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Irudiak, elkarrizketak, koloreak... dena irakurri beharra dago nobela grafiko honetan. Testu gutxiago duelako errazagoa iruditu dakigukeen arren, formatu honetan kontaturiko istorioek bitartekaritza eskatzen dute esperientzia ez dutenentzat. Abortuaren penalizazioarekin loturiko delituengatik kartzelaratuak izan ziren zenbait emakumeren bizitza beraien ahotik entzuteak inpaktu handia sorraziko digu eta tertulia literario batean joko handia eman dezakeen gaia da.



MOTX MOTXEAN: AFORISMOAK
HASIBERRIENTZAT
Idazlea: Juan Kruz Igerabide
Ilustratzailea: Koldobika Jauregi
Denonartean, 2021
ISBN: 978-84-17940-64-5
59 orrialde
Aforismoak

Aforismoa balio literarioa duen esaldi edo esaera gogoangarri bat da. Zer da aforismoaren egia? Esaten hasi, eta amildegia. Liburua 87 aforismok osatzen dute eta bi atal nagusitan banatuta dago: “Motx-motxean hobe” eta “Lau pupu eta bi trapu”. Lehenengoan, gazteen egunerokotasunean ohikoak diren hainbat gairen inguruko gogoetak egiten ditu, adibidez, eskola, zorientasuna, maitasuna edota helduaroa. Bigarren atalean, berriz, osasunarekin eta gaixotasunekin lotura duten aforismoak bildu ditu, egungo egoerari keinu eginez. Testu laburrak badira ere, patxadaz irakurtzekoak dira, gai sakonei buruzko hausnarketa eta gogoeta egitera bultzatuko gaituzte eta. Tinta beltzez egindako irudi surrealitek eskultura itxura dute eta oso iradokitzaileak dira. Irudi eta aforismoen arteko konbinazio interesgarria sortu dute egileek.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Aforismoak topatu eta sortzeko ariketa egin daiteke: zeintzuk dira literaturan ezagunen egin diren aforismoak? Noiz erabili izan dira? Guk sortu al ditzakegu berriak? Liburuan aipatzen diren aforismoak erabiliz, narrazio laburrak ere sortu daitezke.



BAT. PARTIDA HANDIA
Idazlea: Alex Hallat
Itzultzailea: Danele Sarriugarte
Elkar, 2021
ISBN: 978-84-9027-502-3
123 orrialde
Narrazio liburua

BAT (Bullying-aren Aurkako Taldea) taldearen bildumako hirugarren liburua da. Azken urtea dute Marypuddle eskolan eta ikasturte amaieran futbol-partida bat jokatu ohi da Shiverworth mutilentzako eskolaren aurka, Partida Handia esaten diote. Marypuddle galtzaile izan da ia beti, Penalty jauna ez baita entrenatzailearik onena eta ikasleek ez dute batere serio hartzen partida. BAT taldeko lagunak ez dira oso abilak kiroletan, baina bururatu zaie dibertigarria izan daitekeela futboleko jokatzeko eta Penaltyren taldean parte hartzea erabakiko dute. Makina bat buruhauste izango dituzte entrenamenduetan baina primeran pasatuko dute eta bukaeran sorpresa izugarria hartuko dute guztiek. Hamabi atal laburretan banatzen da narrazioa eta liburuaren hasieran pertsonaia guztien aurkezpena egiten denez, hasieratik dakigu bakoitzak ze jokabide izango duen. Txuri-beltzean egindako irudiek kontakizuneko pasarteak irudikatzen dituzte. Abentura dibertigarri eta irakurterraza da. Amaieran bullying-ari aurre egiteko hainbat aholku ematen ditu.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu honek gure ikastetxeko errealtateaz eta gure harremanez pentsarazteko balio digu. Horregatik, tertulia literario bat egiteko oso interesgarria izan daiteke. Hori bai, kontuz bullying-aren gaia gehiegi bideratzeko nahiarekin, diskurtso politikoki zuzenetan erortzeko arriskua dugu eta. Tertulia baliagarria izan dadin, funtsezkoa da ikasleek esandakoei adi egotea.



ETXETIK AMERIKETARA
Idazlea: Enara Garmendia
Erein, 2021
ISBN: 978-84-9109-629-0
133 orrialde
Narrazio liburua

Lagunarteko harremanak eta eskola-jazarpena dira eleberri honetako gai nagusiak. Maia, hamahiru urteko neska, eta bere familia urte baterako Estatu Batuetara joan dira amaren lana dela eta. Bertan ezagutuko du Ayla, elkarrengandik gertu bizi dira eta lagun handiak egingo dira. Dena ondo doa hasiera batean, baina Nathanekek Maiari ikasturte hasierako dantzaldira elkarrekin joateko eskatzen dienez, gelakide batek begitan hartuko du eta Maia baztertu eta umiliatzen hasiko da. Gainera Maiarekin hitz egitea debekatuko die bere lagunei eta honek ezinegon handia sortuko dio Aylari. Betiko lagunak alde batera utziko al ditu Maiaren alde jarri eta injustiziarri aurre egiteko? Atal laburrez osatutako narrazioa da, Ayla eta Maiaren ikuspuntutik kontatuta eta tarteka beste pertsonaia batzuk ere parte hartzen dute. Oso irakurterraza da, bukatu arte utzi ezin den liburu horietako bat.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasleek euren kabuz irakurri ondoren, tertulia literario bat egin daiteke. Horrez gain, bi kulturak, euskalduna eta estatubatuarra, aztertzeko erabili daiteke liburua: bizi-estiloa, hezkuntza, harremanak... Horretarako, beste fikzio batzuetatik adibideak hartu daitezke.



SHERLOCK HOLMESEN ABENTURAK

Idazlea: Arthur Ignatius Conan Doyle
Itzultzailea: Fernando Rey
Ilustratzailea: Adur Larrea
Igela, 2020
ISBN: 978-84-121612-4-3
299 orrialde
Narrazio bilduma



ITSASOAREN ATEA

Idazlea: Miren Agur Meabe
Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga
Elkar, 2021
ISBN: 978-841360-064-2
98 orrialde
Narrazio liburua

Sherlock Holmes eta Watson doktoareen hamabi kasu biltzen ditu liburu honek. Watson doktoarea da kontakizun hauen narratzailea. Kasu harrigarri ugari izango dituzte eskuartean detektibe ospetsuak eta bere laguntzaileak, hala nola, "Eskandalua Bohemian" ezaguna, Holmes protagonista duen lehenengo kontakizun laburra, Bohemiako erresuman argitu beharreko xantaia afera bat. Jarraian etorriko dira ilegorrien elkartearen kasu bitxia, desagertutako senargaiarena, Boscombe Valleyko hilketaren misterioa, errubi urdinaren lapurreta... Hilketak, desagertze, xantaia eta lapurreta guztiak argituko ditu detektibeak dedukziozko arrazoibideak erabiliz. Abilezia eta zorroztasun handia erakutsiko digu kasu guztietan eta aho bete hortz utziko gaitu behin baino gehiagotan. Misteriozko eta detektibe-nobelen artean ezinbesteko klasiko horietako bat dugu hau. Kontakizun laburrak izanik, arin eta erraz irakurtzeko modukoa da.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Detektibe-nobela edo poliziakoen generoan murgiltzeko liburua da. Hemendik abiatuta adibide gehiago gelaratu ditzakegu: Agatha Christieren liburuak, Aitor Aranarenak, telesail edo filmak... Nolakoa da fikzio beltza? Bestalde, Sherlock Holmesen harira egin diren moldaketa eta bertsio ezberdinak aztertu daitezke, euskarri ezberdinetan (filma, nobela grafikoa, literatura digitala...). Animatuko ginatke narrazio beltza idaztera?

Misteriozko eleberri laburra da eta XIX. mendean kokatutako historia bat kontaktzen du. Idazlearen hitzetan "literatura erromantikokoaren kutsuko liburua da". Protagonista Elora Duval izeneko 13 urteko neska gaztea da, ama hil berri zaio eta aitak Ubarroien Uhartera bidali du amona Brigitarenera. Umezain lanetan hasiko da Galantenean eta harreman estua sortuko du bertako Ariane txikiarekin. Ez dira neska arruntak ordea, gainontzekoek igartzen ez dituzten mezuak edo gertaerak hautemateko dohain berezia baitute. Astebetean garatzen den kontakizunean, bien artean askatuko dute aspaldiko kondaira tragiko baten korapiloa. Gainera, Elorak jakingo du emakume-leinu indartsu bateko partaide dela. Kapitulu laburrez osatutako liburua da, luzera berekoak guztiak, eta atal bakoitzean misterioa argitzeko gakoak askatzen joango da. Erritmo geldoa badu ere, hasieratik jakin-nahia pizten du eta erraz irakurtzen da. Aipatzekoa da hizkuntza aldetik oso testu aberatsa dela. Mikel Zarate haur literaturako saria irabazi zuen.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Irakasleak boz gora atalka irakurtzeko moduko narrazio liburua da eta tartean zein amaieran tertulia literarioa burutu daiteke: pertsonaiak, kondaira, garaia eta lekua, guztia bilakatzen da interesgarria eztabaidarako. Era berean, Miren Agur Meabe eta Maite Gurrutxagaren gainerako lanak gelaratzeko baliagarria izan daiteke.




HORMAK
Idazlea: Oihana Iguaran
Elkar, 2021
ISBN: 978-84-1360-058-1
174 orrialde
Narrazio liburua

Eskola-jazarpena da eleberri honetako gai nagusia. Goiz batean, institutuko sarrerako horman pintada handi bat agertzen da: “Lea puta”. Hemendik aurrera mezu hori jasotzeko zein arrazoi dauden jakiten saiatuko dira guztiak. Inork ez du susmorik nor izan den baina, sarritan gertatzen den bezala, fokua erasotzailearengan jarri ordez biktiman jarriko da hemen ere. Atal laburretan banatuta dago liburua eta horietako bakoitzean istorioko pertsonaia desberdinek, lau gaztek eta bi helduk, euren ikuspuntutik kontatzen dute gertatutakoa. Idazleak ez du irtenbide magikorik emango horrelako arazoak konpontzeko baina erakutsiko du eraso horiek saihesteko egin daitezkeela gauzak, liburuko gazteek egingo duten bezala. Eleberri irakurterraza da eta gaiaren inguruan gogoeta egitera bultzatuko gaitu.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Tertulia literario bat egiteko liburu ederra da. Ikastetxeetan (eta kalean) nerabe eta gazteei asko eragiten dien gaia izanik, beraien kezkez, sentipenez eta gogoetez jarduteko oso baliagarria izan daiteke. Aurkezpena egiteak asko lagunduko luke eta institutuan dauden pintadez hausnartzeko aukera paregabea da.


Liburuan gertatzen den bezala, emakumeen askatasuna mugatzen duten pintadak nonahi topa ditzakegu. Testuinguru errealean, horiek ezabatzeko plana ederra izan daiteke, baita hormekin zer egin pentsatzeko ere.



À TRAVERS
Egilea: Tom Haugomat
Editions Thierry Magnier, 2018
ISBN: 979-10-352-0170-8
184 orrialde
Album ilustratua

Hitzik gabeko album honek astronauta bihurtuko den gizon baten historia kontatzen du, jaiotzen denetik hiltzen den arte. Pertsonaiaren sentimenduak, tristura eta pozak, ezagutuko ditugu bere bizitzako etapa desberdinetan zehar: haurtzaroa, eskolako garaia, amaren heriotza, unibertsitateko ikasketak, NASAn lanean hasi eta espaziora egindako bidaiak, maitasuna, semearen jaiotza, bikotearekin haserrealdiak, langabezia, jaiotxera buelta, aitaren heriotza, zahartzarora eta, azkenean, heriotza. Gizonaren bizitzako pasarte hauek guztiak bere begietatik ikusiko ditugu, lente, leiho, pantaila eta zirrikietatik barna. 70 diptikok osatzen dute liburua, horietako bakoitzaren ezkerrean pertsonaia bera dago norabait begira eta eskuinaldean, berriz, ikusten duen hori agertzen da, bi orrialdeetako ilustrazioen arteko dialogo moduko bat sortuz. Irudiak egiteko hiru kolore nahasketa erabili ditu egileak, vintage itxurako ilustrazio adierazgarriak sortuz. Narrazio-metodoa oso erakargarria da, xehetasunez bete. Artelan ederra da album mutu hau.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Album mutua izanik, tertulia literario bat abiatzeko primerako liburua izan daiteke. Istorioari hitza jartzea izan daiteke ariketa eta, hartara, irakurketa ezberdinek hartuko lukete lekua. Ahoz edo idatziz egin daiteke ariketa hori.



JARRAITU INURRIARI
Gidoigilea: Unai Elorriaga
Ilustratzailea: Alex Orbe
Harriet Ediciones, 2021
ISBN: 978-84-123816-1-0
72 orrialde
Komikia

Komiki honek istorio bikoitza kontatzen du. Batetik, errota zahar batean bizi diren aita-alabena. Ama desagertu zaie eta itzuliko den esperantzarekin ez dira ausartzen beste inora joaten. Alaba etsita dago aitarekin, ez baitu ezer egiten etxea behar bezala konpontzeko eta dirua xahutzen dabil jokoan eta apustuetan. Amaren bila ere saiaturiko dira bere gustuko lekuetan baina ez dute arrakastarik izango. Bestetik, lanari lotuta bizi den emakumearen istorioa kontatzen du. Bulegotik ihes egin ezinik bizi da lanak erabat irentsita, lehertzen den arte. Gai ugari lantzen ditu komikiak, hala nola, absentzia, heriotza, ludopatia, laneko gehiegizko orduak eta familia. Irudiak ere kontakizun bikoitzaren isla dira eta bien arteko kontrastea adierazten du. Aita-alabak bizi diren natur ingurune koloreak berde, hori eta argiak dira, itxaropenaren adierazle. Bulegoko emakumearen eszenak, berriz, grisak, hotzak eta ilunak dira, tristura eta ezintasuna transmititzen dute.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Komiki irakurterraza da eta solasaldi literario bat egiteko askorako emango luke, batez ere, bizimodu eta familiaren inguruan hausnartzeko. Bestetik, komikigintza tailerra egiteko aukera polita izan daiteke, liburuaren amaieran ilustratzailearen lan prozesuaren zati bat ikusten baita.



TUPUST! 2
Egilea: Tupust kolektiboa
Autoedizioa, 2021
ISBN: 978-84-09-32934-2
148 orrialde
Komikia

Tupust komigile kolektiboaren bigarren lana da hau. Komigile eta ilustratzaileek osatzen duten talde honek euskaraz eta ikuspegi feministatik lan egiten du. Komiki antologia honek 21 ilustratzailearen 17 lan biltzen ditu. Lehen alea ni-aren ingurukoa izan zen eta bigarren honetan zu-a hartu dute ardatz. “Zu. Bestea. Ni ez den hori. Niaren ardatza, niaren etsaia, niaren osagarri. ZU. Eta hemen gatoz gu, zuaren itzulinguruan. Eta ez, zutaz ari garen honetan, ez gara zentrotik ariko. Ertzetatik ari nahi dugu, nahasketetatik, lokatzetatik, zaugarritasunetik, ahuldadetzat jotako indarretatik”. Irudietan kontrastea sortzeko bi kolore bakarrik erabili dituzte, laranja eta urdina. Bikoteka edo banaka sortu dituzte komikiak, bakoitzak bere modura landu du gaia eta bi koloreen arteko konbinazioak ere oso libreak dira. Sortutako proposamenak guztiz desberdinak dira, bai narrazio estiloaren aldetik eta baita estetikaren aldetik ere. Aniztasun handiko bilduma osatu dute oraingoan ere.


Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Komikigintza lantzeko aukera bikaina ematen du bilduma honek. Kolektibo gisa, zu hitzaren bueltan ikasleei euren binetak egiteko proposatu diezaiekegu, Zu-ari buruzko istorio ilustratu bat sortzeko asmoz. Komikigintza lantzeko baliabide interesgarriak: <http://www.komikipedia.eus> eta <https://www.amarauna.euskadi.eus/baliabidea/> komikigintza



LAZUNAK AZKAZALETAN
Idazlea: Oihana Arana
Susa, 2021
ISBN: 978-84-17051-66-2
91 orrialde
Poesia

“Domestikotasunari” buruzko poema liburua da. Fikzioaren apologia batekin hasten da, segidan bost atal eta epitafio bat bildu ditu. Lehenengo atalak, “Lurrikara sinbolikoak”, jendarteari buruzko poemak biltzen ditu. Bigarrenean, “Konstelaziogintza”, zeruko elementuen bidez bakardadea edota maitasuna bezalako gaiak izan ditu ardatz. Hirugarrenean, “Herdoildutako aldamiok”, harreman mota desberdinez dihardu. “Etxeak” atalean, berriz, habitatzen ditugun espazio fisiko zein psikologikoak ditu mintzagai. Azkeneko atala, “Arrainontzi bat buruan: jostailuzko eskafandra”, gorputzarekin ditugun harremanei eskaini dio. Jakin-minetik abiatutako poemak dira, erantzunik emateko asmorik gabeak. Ironia eta kritika topatuko ditugu gizarteari, harremanei, etxeari eta gorputzari buruzko poema sorta honetan. Pixkanaka irakurriz, hausnarketarako bidea zabalduko dio irakurleari.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Poesia lantzeko liburua da. Tertulia literarioen artean poesiari bere txokoa eman eta aukeratutako hainbat poemak inguruan eztabaidatu daiteke: Zein irudi sortzen dizkigute hitzek? Zeri buruz mintzo dira? Irakurle bakoitzaren irakurketari bide emateko galderak eginez. Era berean, poemak ilustratzeko ariketa bat ere egin dezakegu.



ANTIPODAK
Idazlea: Gaizka Arostegi
Ibaizabal, 2021
ISBN: 978-84-1370-178-3
222 orrialde
Narrazio liburua


Debekatutako maitasun istorio bat da eleberri historiko honetako ardatz nagusia. Donostian kokatzen da narrazioa, 80ko hamarkadan, Euskal Herriko giro politikoa ezin nahasiagoa zegoen garaian. Protagonista nagusiak bi dira: Jon, kartzelan dagoen ETAko kide baten semea, eta Oliva, Intxaurrendoko kuartelera bidali duten guardia zibil baten alaba. Donostiako Alde Zaharrean ezagutuko dute elkar, istilu biziak izan diren iluntze horietako batean. Elkarrenganako erakarpen berezia sentituko dute bi gazteek eta erabat maiteminduko dira. Baina euren harremana ez da batere kontu erraza izango, bi alderdietako gorroto eta aurreiritziei aurre egin beharko diete eta bizitza erabat konplikatuko zaie bie. Garai bateko isla da kontakizun hau eta oso ondo girotuta dago. Protagonisten azalean sartuko gara hasieratik eta euren sufrimenduarekin bat egingo dugu istorio guztian zehar. Di-da batean irakurtzen den eleberria da, behin hasita ezingo dugu utzi bukatu arte.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Euskal Herria 80ko hamarkadan nolakoa zen ikusteko aukera izango dugu liburu honekin. Honen irakurketa aprobetxatu dezakegu denbora lerro bat egiteko, sasoi hartako politikaz hitz egingo digun norbait eskolara ekartzeko, garai hartan kokaturiko pelikulak ikusteko... Atzerako begirada interesgarri bat sortu dezakegu hainbeste aldatu den ingurune sozio-politikoaz ohartzeko.



ZERAK

Idazlea: Yolanda Arrieta
Denonartean, 2021
ISBN: 978-84-17940-69-0
130 orrialde
Narrazio liburua



GEZURRA

Idazlea: Care Santos
Itzultzailea: Miren Agur Meabe
Giltza Edebe, 2021
ISBN: 978-84-8378-572-0
249 orrialde
Narrazio liburua

Liburu berezia da. Testu labur eta solteak biltzen ditu, euren artean oso desberdinak. Mikroipuinak, poemak, narrazio poetikoak eta gogoetak aurkituko ditugu bertan. Ahots batek lotzen ditu guztiak baina ez da derrigorrezkoa horri jarraitzea, banaka, saltoka edo eleberri modura irakurtzeko aukera eskaintzen du. Axi izeneko neska gazte bat da narratzaile nagusia, idaztea eta irakurtzea oso gustuko dituena. Kezka eta beldur ugari ditu eta horien inguruko gogoeta eta hausnarketak idatziz jarriko ditu. Nerabezaroan ohikoa denez, taldean onartzeko beharra sentitzen du baina,aldi berean, ez dago eroso besteak ez bezalakoa, friki samarra, dela sentitzen baitu. Barne borroka horretan murgilduta dago, adin honetan desberdina izatea ez baita hain erraza.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Hasieratik bukaerara jarraian irakurri daiteke edota saltoka eta zatika. Nerabezaroan gertatzen zaizkigun gauza askori buruz hitz egiten du liburuak: taldean onartua izan edo ez, norberaren lekua zein den, lagun ezkutuak, haztea, nork bere ahotsaren bila egiten duen bidaia...

Irakasleak markatu ditzake erritmoak eta egunero zati bat ahots gora irakurri. Zati bakoitzari loturiko tertulia labur bat ere egin daiteke, pixkanaka aurrera eginez.

Maitasuna eta elkartasuna ardatz dituen eleberria da hau. Xenia notarik onenak atera nahian dabil Medikuntza ikasteko. Eskolako lan bat egiteko J.D. Salingerren “Zekale artean harrapaka” maileguan hartu eta, liburuari buruz beste gazte batzuen iritzia topatzekotan, liburutegiko irakurleen forumean sartuko da. Bertan ezagutuko du irakurtzea berari bezainbeste gustatzen zaion mutil berezi bat. Xenia erabat maiteminduko da eta elkar ikusteko gogo bizia piztuko zaio, baina mutilak horretarako aukerarik ematen ez dionez, bere kabuz bila hasiko da. Ikasketak alde batera utzi eta bilaketaren zurrumbilo horretan sorpresa itzela hartuko du mutilak emandako datu apurrak gezur hutsa direla deskubritzen duenean. Eta ezustekoa are handiagoa izango da adin txikiko delitugileen kartzela batetik pakete bat jasotzen duenean. Kontakizunak ederki eusten dio tentsioari hasieratik amaieraraino. Atal laburrak ditu eta irakurteraza da, behin hasita bukatu arte utzi ezin den liburu horietako bat da. Idazlea oso ezaguna da gazte literaturan eta lan honekin Edebé Gazte Literatura Saria eskuratu zuen 2015ean.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ezinbesteko gaia da liburu honetan agertzen dena: internet bidezko harremanak nola kudeatzen ditugun, zerk betetzen gaituen, zer dagoen horren atzean. Lotsatu egiten gara, gezurretan ibiltzen gara. Liburu hau teknologia berrietan eta sare sozialetan aditua den norbaiten hitzaldi edo tailerrekin lotzeko aukera ezin hobea izan daiteke.



ARTXIPELAGOA (+12)
Garatzailea: Ulu Media, 2021

<https://www.eitb.eus/eitbpodcast/aisia-fikzioa/artxipelagoa/>

Juan G. Andrés eta Oier Aranzabalen zuzendaritzapean EITBPodkast plataformarako ekoiztako telesaila da. Ordu eta erdi inguru irauten duten 8 atalez osatua dago eta EITBPodkast atalean edo Spotify plataforman entzun daiteke. 2103. urtean, ia Europa guztia urpean geratu da. Itsasoaren maila 500 metrotik gora igo da eta hiri estatu gisa eratu dira ur gainean geratu diren lurralde bakarrak. Horien artean dugu Euskal Artxipelagoa. Tsunami moduko igoera honek ez du soilik herrialde osoak urpean geratzea eragin, baizik eta domino-efektu bizkor batean, telekomunikazioak, nekazaritza edota energia produkzioa ezabatu ditu. Honen aurrean emango diren lurraldeen arteko aliantza berriek arrisku zaharrak azaleratuko dituzte berriro ere. Euskal Artxipelagoan bizi da Jare, mundu zaharraren berri izan nahiko duen gaztea.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasgelan batera entzuteko podcast literarioa da edo ikasgelan hasi eta ikasleek etxean entzuten jarraitzeko modukoa. Ondoren tertulia literario bat egin daiteke. Ahozko literaturari tartea emateko ariketa izan daiteke.




ZALDI URDINA (+12)
Garatzailea: EITB, 2022

<https://www.eitb.eus/eitbpodcast/aisia-fikzioa/zaldi-urdina/>

Artedrama, Axut! eta Dejaburen “Zaldi Urdina” antzezlanaren audiofikzio digitalaren formatura ekarri du EITBk. Unai Iturriaga eta Igor Elortzak idatzi, eta Ximun Fuchsek zuzendutako lana da. 12 minutuko iraupena duten bederatzia ataleko podkasta da eta EITBPodkastak atalean edo Spotify plataforman entzun daiteke. Aingeru 17 urteko gaztearen arrastoaren bila abiatzen dira istorio honetako pertsonaiak. Tekno-jaialdi batean Zaldi Urdina izeneko droga berria hartuta hil egin da adin bereko gazte bat. Droga berriarekin ezkutuko salerosketan dabilena Aingeru delakoan, atzetik ditu familia eta polizia. Amets 22 urteko arreba errebeldeak, Karmen amonak eta Simon udaltzainak astebeteren barruan aurkitu behar dute mutila, 18 urte bete baino lehen, eta epaitegira abokatu on batekin eraman.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ikasgelan batera entzuteko podcast literarioa da, edo ikasgelan hasi eta ikasleek etxean entzuten jarraitzeko modukoa. Amaieran, “Zaldi Urdina” antzezlanaren ere ikusi daiteke online: <http://www.zaldiurdina.eus/>



TOWNSCAPER (+6)
Garatzailea: Oskar Stålberg,
2021

<https://store.steampowered.com/app/1291340/Townscaper/>

Hirigintzari buruzko fikzio digitala da. Mugikor, tablet edo ordenagailuan deskargatu daiteke, Google play eta App Storen bitartez. Hiri, herri edo leku fantastikoak sortzea du helburu bakarra. Herritxo txikiak, katedral altuak, kanalak edota flotatzen duten hiriak eraiki daitezke. Sortu, eraiki eta edertasunaz gozatzea besterik ez da bilatzen. Parte-hartzaileak kolore bat hautatu eta arkitekto edo hiri diseinatzaile bihurtu daitezke.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Literatura digitala ezagutzen hasteko adibide bat da. Ikasleek jolasean eraikitzen dituzten hiri eta garaiak (iragan edo etorkizunekoak), sortu ditzaketan narrazioen testuinguru bilakatu daitezke.



SAMOROST 3 (+8)
Garatzailea: Amanita Design, 2016

<https://amanita-design.net/games/samorost3.html>

Aplikazio digital arrakastatsu hau esplorazio abentura narratibo eta puzzle joko bat da, Samorost eta Samorost 2 zaharragoen jarraipena. Mugikor, tablet edota ordenagailuan deskargatu daiteke, Google play eta App Storen bitartez. "Samorat 3" istorio digitalean, ipotx espazial bitxi batek txirula magiko bat topatuko du eta honen jatorria deskubritzeko, txirularen ahalmenez baliatuko da. Bidean hainbat erronkari aurre egin beharko die, izaki berezi eta sorpresa koloretsuz beteriko bederatzi mundu fantastikotatik igaroz. Teknikoki puzzle jolas bat da, pantailetan aurrera nola egin ebatzi behar da logikaren bidez eta bidean aurkitutako tresna mekaniko edo natural desberdinak erabiliz. Diseinu paregabea du abentura honek, oso estetika bereziarekin.

Bi sari irabazi ditu fikzio digital honek: IGF sariak 2014an eta Adventure Gamers Awards sariketa 2016an.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Literatura digitala ezagutzen hasteko adibide bat da. Besterik gabe, aplikazioa deskargatu eta ekin jolasteari, istorioa deszifratu eta osatzeari.



INSIDE (+12)
Garatzailea: Playdead, 2016

<https://store.steampowered.com/app/304430/INSIDE/>

“Barruan” harrapatuta eta bakarrik aurkituko du bere burua istorio honetako protagonistak. Ohartu gabe proiektu ilun batean sartu da eta irakurle/jokalariaren helburua izango da proiektua argitu eta mutikoari bertatik ateratzen laguntzea. Fikzio digital interaktibo honek Apple-en diseinu saria irabazi du. Mugikor, Tablet edo ordenagailuan deskargatu daiteke Google play edo App store-n bitartez. “LIMBO” izeneko fikzio digitalaren sortzaileek garatu dute eta oinordeko ezin hobea dela aipatu du kritikak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Literatura digitala ezagutzeko adibide bat da. Besterik gabe, aplikazioa deskargatu eta ekin jolasteari eta istorioa deszifratu eta osatzeari. Ondoren, tertulia literario baten bitartez, jolas edota istorioaren egituraz, pertsonaiez eta gainerakoaz eztabaidatu daiteke.



A NORMAL LOST PHONE (+14)
Garatzailea: Plug in Digital, 2017

<https://anormallostphone.com/>

“Galdutako mugikor arrunta” fikzio digital interaktiboa da. Aplikazio hau mugikor, tablet edo ordenagailuan deskargatu daiteke, Google play eta App Store-n bitartez. Ikerketa narratibo bat planteatzen zaio jokalariri/irakurleari: kalean aurkitutako mugikor ezezagun bateko mezuak, irudiak, aplikazioak eta gainerakoak arakatu beharko ditu mugikorraren jabea nor den jakin eta itzultzeko. Ohartuko garen lehen gauza izango da Sam deituriko 18 urteko gaztea, mugikorraren jabea, desagertu egin dela. Zer gertatu ote da? Jolas honek errealitate eta fikzioaren arteko mugak hausten ditu eta, telefono mugikor baten bitartez, narratiba molde berri batean sartzera eramaten gaitu.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Literatura digitala ezagutzeko adibide bat da. Besterik gabe, aplikazioa deskargatu eta ekin jolasteari eta istorioa deszifratu eta osatzeari. Ondoren, ikasleen narrazioetarako abiapuntu bilakatu daiteke: Zer egingo zenuke sekretuz betetako mugikor bat kalean topatuko bazenu?

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA
Viceconsejería de Política Lingüística



Galtzagorri
elkartea